



Manuel María Zorrilla, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko majistratu presidentea

“Hizkuntzaren babes, asetu nahi den
tutela judizialerako oinarrizko eskubidearen
funtsezko edukian koka daiteke”

Manuel M. Zorrilla Ruiz jaunak Valladolideko Unibertsitatean gauzatu zituen bere Zuzenbide ikasketak, bertan Aparteko saria eman ziotela aipagarri izanik, eta urte berean, 1955ean, abokatu ekonomista egin zen Deustuko Unibertsitatean. Hamar urte geroago doktore bilakatu zen Zuzenbide arloan eta bide horretatik jo du; haseran epaile gisa, Lan arloko magistratu lez ondoren. Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko presidentea dugu egunotan.

Bestalde, 11 liburu eta 160 artikulua baino gehiagoren egilea dugu; hala nola, “Nafarroan euskararen sustapenari buruzko ikerketa” eta “Prozedura Autonomikoko Armonizazioaren Lege Organiko Proiektuaren inkonstituzionaltasunari buruzko Irizpena”.

1.

Iragan abenduaren 18an, EAEko Justizi Administrazioari buruzko Hausnarketa Jardunaldietan hartu zenuen parte, antolatzaileetarikoa bat Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusia bera izan zelarik. Nola sortu zen hausnarketa jardunaldi hori egiteko asmoa?

Justizi Administrazioan *euskararen erabilera judizialari* buruzko azterketa lasai eta zehatz batek gisa horretako bilkura baten beharra zuela erabaki zuen duela zenbait hilabete Institutioarteko Batzordeak -Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorraren ekimen baten ondorioz, eta bertan Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko presidentea hartzen duelarik parte Gobernu Aretoaren ordezkari gisa-. Aztertu nahi ziren gaien garrantzia zela eta -zeina benetan erantzunkizun guztiarekin egin zen-, iritziak aditzera eman behar zituztenek euren ikuspuntuak aditzera emateko aukerarik onargarrien eta egokiena *Euskara Justizi Administrazioan Hausnarketa Jardunaldiak* antolatzea zen.

2.

Jardunaldietan izandako zenbait partehartzailek Justizi Administrazioaren berandutza azpimarratu zuten hizkuntz normalizazio prozesuan sartzeari dagokionez. Zeure ustez, zein da atzerapen horren zioa?

Atzerapena, izatekotan, ez da arreta gutxiko jarrera edota interes gabeziagatik izan. Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoa beti agertu da behar hori babestu eta zaintzearen alde. *Euskara Justizi Administrazioan Hausnarketa Jardunaldiak*-eko ponentzia batek argi adierazi zuen kezka hau. Beste gauza da bitarteko pertsonal eta errealean xedagarritasuna, eta inprobisatzen ez diren eta euren eraginak bapatean sortzen ez dituzten irtenbideen metodologia. Honek guztiak halere ez du inola ere gutxien lan honi eskaini beharreko arreta. Ez da bidezko Justizi Administrazioari inolako bereiztasunik gabe jarrera axolagabe bat egozte denok ezagutzen ditugun ikuspegi eta eskakizunak dituen bistako fenomeno baten aurrean; *euskararen erabilera judiziala*-ren aurrean alegia.

3.

Zeure mintzaldian, besteak beste, prozeduran hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidearen izaerari buruz hausnartu zenuen. Prozedura penalean errespetatu behar den ahozkotasan printzipioa aipatu zenuen...

Ahozkotasunaren intzertibo konstituzionala, ekintzen egi historikora hurbiltzeko eta alderdien argumentuen probetxuzko asimilatze bat errazteko dago pentsatua. Bereziki prozedura penalerako aholkatzen bada ere, ahozkotasuna gainerako orden juridikozionalak zabalteak abantailak baino ez lituzke ekarriko justiziaren interes orokorrerako. Gainera, babes judizialaren eraginkortasun konstituzionaleko faktore bat da. Prozedura judizialean Erkidego Autonomoko hizkuntza propioan egiten diren borondate eta ezagutza adierazpenek ahozkotasuna hobetu eta babes horren eraginkortasuna areagotzen dute. Horregatik koka daiteke hizkuntzaren babesa asetu nahi den oinarrizko eskubidearen funtsezko edukinean.

4.

Izaerari dagokionez, ba al da funtsezko desberdintasunik libreki aukeratutako hizkuntza ofizialean Administrazioarekin erlazionatzeko eskubidearen eta hiritarrak Justizi Administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofiziala hautatzeko duen eskubidearen artean?

Bigarren aukera oinarrizko eskubide baten egikaritzarekin lotuta dago, zeren eta aukeratutako hizkuntza ofizialaren erabilerak ahozkotasunaren eraginkortasuna indartzen du, eta hau, adierazi den lez, jurisdikziora jotzearekin babesten diren eskubide eta interes legitimoen benetako babes judizialaren osagai bat da.

5.

Alderdiei eta beren ordezkari jarduera judizialak gauzatzen diren Erkidegoan koofizial den hizkuntzaren erabilera bermatu ahal izateko, Botere Judizialaren Lege Organikoko (BJLO) 231. artikulua ahalmena ematen dio hizkuntza hori ezagutzen ez duen epaile edo Auzitegiari hizkuntza hori dakien edozein pertsona itzultzaile gisa gaitzeko. Jardunaldien baitan, zenbait partehartzailek argudiatu zuen legearen aurrikuspen honek derrigorrez aldebaterakoa den egoera bati erantzuten diola; izan ere, hizkuntza koofizial baten erabileraren eskubidea bermatzeko, espainiera ezagutzen ez duen eta beste hizkuntza batean mintzatu

behar den atzerritar baten defentsagabezia ekiditeko erabiltzen diren neurri berberetara jotzen da...

Itzultzaile-interpretetara jotzea eta babes judizialaren eraginkortasuna -aditu horiek parte hartzen duten prozeduretan eman beharrekoa- bateragarriak dira konstituzionalki, eta baita defentsarako eta berme guztiak dituen prozedura baterako oinarrizko eskubideen babesarekin ere. Berez ez da eskasa, eta ez da aldebaterakoa edo iragankorra den konponbide bat. Hizkuntzaren normalizazioa ematearekin batera *gutxiengo konstituzionala* piskanaka hobetuko -perfekzionatuko, azken batean- duten komunikazio eta ulertze moduak sartzearen kaltetan gabe ulertu behar da bere erabilgarritasuna.

6.

Itzultzaileen lana, hizkuntza koofizialen arloan, prozeduran zehar alderdien defentsagabezia ekiditeko asmoarekin justifikatzen du BJLOk. Auzitegi Konstituzionalak bere 1997ko urriaren 1eko Probidentzian berriki adierazi duenez, "aipatu neurriak (interpretazioa eta itzulpena), helegileen eskaerentzako erantzunak baino ez dira, juridikoki oinarrituak eta logikoki proportzionatuak izanik". Zeure aburuz, bermatzen al du sistema honek epailearen eta auzipetuaren artean egon beharreko hurrentasuna?

Hurrentasun prozesalak -teknikoki banaezina ahozkotasunarengandik-, ekintza prozesalean egindako borondate edota ezagutza adierazpenak geldiaraztea edo etetea ekiditen du. Printzipio hauek bete eta gailen daitezten, itzultzaile-interpreteten lanak gauzatu behar duen modua xehetasun osoz zehaztu du Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu Aretoko 1997ko urriaren 17ko Prebentzioak, honela segurtasun juridikoaren eta benetako babes judizialaren oinarrizko eskubidearen bermeak zaintzeko.

7.

Bai BJLO 1985. urtean, bai lehenago -1979an- Euskal Herriko Autonomi Estatutua, magistratu, epaile eta idazkari lanpostuetarako hizkuntza propioaren ezagutza lehentasunezko meritu gisa baloratzeaz mintzo dira. Baina hizkuntza koofizialaren ezagutza meritu gisa kontuan hartzeak (aintzinasuneko 6 urteren ballokide) lekualdatze lehiaketa baterako, edota Erkidego Autonomotik kanporako lanpostu baterako, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrek egindako

erregelamenduaren zirriborroan proposatu bezala, ez dirudi oso baliagarri lortu nahi denerako (Justizi Administrazioarekin euskaraz erlazionatzeko hiritarrak duen eskubidea). Jardunaldiotara joan ez zen epaileen beste talde baten ustez, euskara meritu gisa baloratzea jurisdikzio batasunaren aurkakoa da. Zein neurri hartuko zenituzke zuk aipaturiko eskubidea bermatu ahal izateko?

Euskararen ezagutzan oinarritutako merituaren baloraziorako aurrikusia dagoen erregelamenduzko trataerak, ezagutza hori Zuzenbidearekin bat datorren irizpide bat dela erakusten du. *Erkidegoko hizkuntzaren erabilera judiziala*, piskanaka eta etengabe jarraitu beharreko helburua da *Euskara Justizi Administrazioan Hausnarketa Jardunaldi*-etan bertan ateratako ondorioen arabera, beti ere hizkuntzaren normalizazio prozedura orok dituen zailtasunak kontutan hartuz, eta hori dela eta hain zuzen ere, aurrera egiteko behar den ahalegin sendo eta arduratsua.

8.

Hirurogeita hamargarren hamarkadako eta laurogeigarrenaren haserako Euskal Herriko Zuzenbide fakultateetako egresatuek, nahiago izan dute beste lanpostuetara jo epailetzararako oposatu beharrean, oro har eta arrazoi ugari medio. Hori dela eta, egun oso gutxi dira euskara dakiten epaileak gure erkidegoan. Baina Justizia Kontseilariordetzak eginiko estatistiken arabera, euskara menperatzen duten Zuzenbideko lizentziatuen kopurua urteko berrehun ingurukoa da. Magistratu, epaile eta idazkari lanpostuei derrigorrezko hizkuntza eskakizun bat ezartzea irtenbide bat ote litzateke epe ertainera begira?

Lanpostu horietarako derrigorrezko hizkuntz perfil bat -gehigarri eta nahitaezkoa- galdatzeak, beren horniketarako eskatzen diren meritu eta gaitasun baldintzen erregimena uki dezake. Ondorio hori bera lor daiteke, baina balizko eragozpen hori gabe ordea, *funtzio judizialaren berezitasunak* eta *botere publikoaren izaera* present dituen hizkuntzaren normalizazio politika batekin.

9.

Epe laburrera, artikula al daiteke euskara dakien epaileen lehen zirkuiturik?

Baliteke, baina beti ere erreklutamenduko baldintza orokorretan justifikazio objetibo eta arrazoizkorik gabeko tratu desberdintasunik ez balego.

10.

Epaiak euskaraz eman ahal izateko euskara ezagutzeak daukan zailtasunaren aurrean, zera zioen Jardunaldietan aipatu zen beste irtenbide partzial batek: hizkuntzarako gaikuntza pasiborako planak egitea, horrela epaileak ahozko prozedura zein idatzizkoa jarraitu ahal izateko adinako ezagutza izan dezan. Zer irizten duzu irtenbide honi buruz?

Hizkuntzarako gaikuntza pasiborako planak bultzatzean datzan irtenbideak Justizi Administrazioiko zerbitzu publikoaren prestazioa hobetzen du, harrera ona du gizartean eta Erkidego Autonomoko hizkuntzaren ezagutzaren maila batera iritea bultzatzen du gainera. Aipatzekoa da horri buruz aurrikusitako berehalako erregelamendu aldaketek - Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak aurrikusi dituenak- ez dutela baliagarria eta kontuan hartzeko modukoa den ezagutzaren aldaera hau jasotzen, nahiz eta agian ez aipatzea oraindik ere salbatzerik badagoen.

11.

Justizi Administrazioiko funtzionarioak prest agertu ziren sindikatuen eta Kontseilariordetzaren artean negoziatutako hizkuntz normalizaziorako planak onartzeko. Prozedura hau, plan integral baten bidez, epailetzaren hizkuntz normalizaziorako prozedurarekin koordinatu beharko litzatekeela uste al duzu?

Funtzionario judizialen hizkuntz normalizazio prozedura, ekimen pertsonalen ohikotasunaren araberrakoa da, eta baita euskararen ikaskuntza zehatza -ikasteko neketsua den hizkuntza- epe luzerako liberaziorik onartzen ez duen jarduera profesional baten jarraipenarekin armonizatzearen zailtasunaren araberrakoa ere.

12.

Bukatzeko, Zorrilla jauna, noraino da transferigarri Justizi Administrazioa?

Transferentziak, *ukitutako funtzio eta eskuduntzen izaerak* baimentzen dueneraino eman behar dira, konstituzionalki ezin baitu eta ez bailuke bestela izan behar. Konstituziogileak *botere judizialaren batasuna* aipatzen du Erkidego Autonomoek Justizi Administrazio arloan dituzten interbentzio eta eskuduntzez aritzean. Kontsiderazioa alda daiteke une jakinen batean *Autonomiez osaturiko Estatuaren* egitura, federal edo kuasi federal motakoren batez ordeztuko balitz.

Elkarrizketa: Itziar Alkorta
Itzultzaile: Koro Garmendia